

> Buletina

Haurreskolak

2020-21 ikasturtea



www.irakaskuntza.lab.eus

ARABA:

haurreskolak.ara@lab.eus
Fermin Lasuen, 13 behe
01001 Gasteiz
Tlf: 689 68 62 07
Fax: 945258039

BIZKAIA:

haurreskolak.biz@lab.eus
Rekalde zumarkalea, 62 behe
48010 Bilbo
Tlf: 666 77 11 96
Fax: 944706909

GIPUZKOA:

haurreskolak.gip@lab.eus
San Bladi, 1 behe
20013 Donostia
Tlf: 674 09 45 43
Fax: 943456645

Ikasturteak **emandakoa**

Azken urteetan hamaika izan dira LABek esku artean izan dituen erronka eta borroka. Haurreskolak Partzuergoa fase berri batean dagoela egiaztatzen dugu LABetik; izan ere, 2020ko urtarilean Hezkuntza Sailak izendatu zuen gerente berriarekin eta beranduago, Covid-19ak sortutako egoerarekin, aurkezten zaigun panorama orain arte izan dugunarekin guztiz bestelakoa baita.

Azken aldagai hau dela medio, irailaren 15ean itzulera segurua eta adostua eskatzeko irakaskuntzako greba burutu genuen, administrazioaren noraeza salatuz.

Haurreskolak Partzuergoko gerenteak, aldiz, aldebakartasunaren alde egin zuen, inolako oinarri pedagogiko eta langileon lan-baldintzak kontuan hartu gabe hainbat erabaki hartu zituen.

Gainera gerenteak negozioz kolektiboari bizkarra eman dio kargua hartu zuenetik. Horregatik, LABek beste sindikatuekin batera mobilizazio dinamika bultzatu zuen Partzuergoan, 7 greba egun eta familia eta bestelako eragileekin batera he-

rrietan egindako mobilizazio arrakastatsuak egin ostean, langileok adierazitako kemenari esker, martxoan lortu genuen blokeoa gainditzea eta honako hauek:

- > Eusko Jaurlaritzako hezkuntza saileko ordezkariak mahaietan parte hartzea lortu dugu; urteetako aldarrikapena eta Administrazioak Partzuergoarekiko duen arduren adierazpen argia.
- > 2018an LABek sinatutako Akordioaren zilegitasunaren aitorza lortu dugu Administrazioetik.
- > Lan hitzarmen berriaren negoziazioa abian jartzea lortu dugu.
- > Haurreskola bakoitzean norbera babesteko ekipamendua erosteko partida berezi bat jasotzea lortu dugu.

Gauzak horrela, apirilaren 22an, behin-behinekotasun tasaren abusua salatuz, (Haurreskoletan, kudeaketa arloan %100ekoa eta hezitzaileen artean %40a) enplegua sortu eta kontsolidazioa eskatuz zerbitzu publikoen aldeko greba burutu genuen.

• LABek bere aldetik lortu du:

- Zuzendaritza batzordeari eskaera eginez, haurren matrikulazio irizpide berriak eta murriztatzaileak atzera botatzea; hain zuzen ere, haurra haurreskolan hilabete hasieran hasi ahal izateko, aurreko hilabetearen 10a baino lehen matrikulazioa egiteko baldintza.

- LABek 2018ko akordioa garatzeko 2020ko urtarilean sinatutako kudeaketa alorreko aurreakordioa ez betetzeagatik administrazioa epaitegira eraman du. 2021eko ekainaren 15ko ebazpenean, Tribunalak Haurreskolak Partzuergo Publikoa kondenatzen du LABek aldebakarrez sinatutako 2018ko martxoaren 6ko akordioaren 1. artikulua aplikatzera; hain zuzen ere, kudeaketako lanpostuen zerrenda arautu eta argitaratu, funtzioak zehaztu, Lan Eskaintza Publikoaren egutegia eta baldintzak negoziatu eta horrekin batera, langileen ordezkoren araudia eta barne promozioen araudia argitaratzera.



DOAKOTASUNA

0-3 ZIKLOAREN AITORTZA ETA HEZKUNTZA SAILEAN INTEGRATZEA HELBURU DITUEN FASE BERRI BATERANTZ joatea eskatu du LABek

> Ikasturte hasieran, ALDERDI POLITIKOEI Haurreskolak Partzuergoaren inguruan eskatutako elkarriketetan.

LABek legebiltzarrean dauden alderdi politiko guztiei bilerak eskatu zizkien (Vox izan ezik), baina soilik EH Bilduk eta EAJk eskaini digute eurekin biltzeko aukera.

> PLAN ESTRATEGIKOAREN hastapenetan

Eusko Jaurlaritzak hurrengo urteetarako Haurreskolak Partzuergorako plan estrategikoa enkargatu du. Diagnostikoa egingo duen ikerlariagaz elkarriketa errondan, LABek eredu gerentziala honek tope jo duela argi esan zuen. Kalitateko hezkuntza bati erantzun ahal izateko Hezkuntza Sailaren barruan integratzea ezinbestekoa jotzen dugula eta 0-3 zikloa berreskuratzea dugula helburu.

• **Unibertsaltasuna, inklusibitatea eta doakotasuna** da gure iparra eta determinazio argia.

- **Herri eta auzo bakoitzak merezi duen Haurreskoleko hezkuntza eskaintza publikoa eta euskalduna bermatu beharra dago.** Horrekin batera, benetan

unibertsala izan dadin, ezinbestekoa da aukera berdintasun printzipioan oinarrituta, publikoa den doako zerbitzua izatea.

• **Inklusiboa** bizitzaren lehenengo etapa honetan gurea den euskara eta eukal kulturarekin lehenengo harremana funtsezkoa da inklusiorako tresna gisa.

> **0-6 etaparen logika** pedagogikoan oinarrituta, **haurren beharrak erdigunean** jartzea.

- 2 urteko gelak berreskuratzea.

- Umeen hobebeharrez eskolekin batera elkarlanean aritzea.

- Eskolen mapa barruan kokatzea. Umeen hezkuntza ibilbidea marraztuko duena.

• **Kalitateko hezkuntza zerbitzua.** Korrante pedagogiko berriei egokitu ahal izateko, beharrezkoa den inbertsio eta finantziazioa behar dugu; formazio, instalazio, material eta pertsonal hornidurari dagokienez

Ikasturte honetan abian jarritako **lan hitzarmen berriaren negoziazioarekin jarrituko dugu**, plan estrategiko horrek hurrengo lan hitzarmena goitik behera baldintzatuko duela jakinda. Horretarako **lan taldeak egin, iradokizunak eta ekarpenak** jasotzen ari gara.

LABek sinatu dituen akordioak negoziazioaren oinarria izango dira. **Egungo errealitateari eta nahi dugun eredu berri honi erantzun dion lan hitzarmen berria** negoziatu nahi dugu bere osotasunean. Bide horretan, LABek mahaietan exijitu bezala hezkuntza saileko gainontzeko sektoreetan negoziatzen ari denaren parera, **gazteberritze plana, klausula feministak, formakuntza, lan osasuna, ratioen jaitsiera eta langileon egonkortasuna** ardatz izango dugu.



ZEIN DA BA, LAB SINDIKATUAK IKASTURTEA BUKATU ARTE BULTZATUKO DITUEN LAN ILDOAK?

1.

Irailerera begira, Covida tartean ikasturtearen hasiera adostua eta seguru izateko, **pasa den ikasturtean LABek proposamen zehatza egin zuen eta orain berdin egiten ari gara.**

2.

Matrikulazioa, beharrak, kontingentzia plana eta bitarteko pertsonalak kontuan hartuko dituzten irizpideak adostea.

3.

Adostutako irizpide horien arabera planteamendu ekitatibo eta orekatua haurreskola guztientzat.

> **HELBURUA:** Enplegua mantentzea eta langileon zein haurreskoletako plantilen egonkortasuna lortzea.

Horretarako:

> Irailerako **haurreskolen horniketa adostu.**

> Haurreskolaz-haurreskola behar dugun **langileon hornikuntzarako irizpide berriak adostu.** Kontingentzia planak bete ahal izateko ratioak berrikusi, eta haurren ordutegiak eta eraikinen ezaugarriak kontuan hartuko dituen irizpideak ezarri behar dira. Hezitzaileen desplazamenduekin amaitzea dugu helburu.